

ERRECHINOLA

Zeru altuko bide gaibiyen
Errechinola egaa legunez
Kantari dua, goza betea
Kontentasunez.

Aingeru batek deitutzen diyo
Eztitasunez, ona izanik
Baña choriyak eztu entzun nai
Bere esanik.

—Goititu zaite, atoz aguro,
Zabiltza laister,—diyo gaisuak—
Entzun ditzagun zure kantacho
Otseztitsuak.

Utzirik baso, saroi mendiyak,
Atoz egalez, atoz segiran,
Oartutzer a choriyak nola
Izaten diran.

Zuk badakizu emen dirala
Menda gozoak, lora garbiyak
Eta Jaungoiko egiazkoen
Mandatariyak.

¡Arren atozkit! egun berriko
Chori politen esna zalea,
Zu zeralako berri onaren
Ekartzallea.

Entzun nayezen noizbait bezela
Zure kantacho samur gozoak,
¡Zer zorionez pasa litezken
Ordu osoak!

Negu beltzean eroritzen dan
Elurrak eta kazkarabarrak,
Ez ditu iñoiz bustiko zure
Ego ñabarrak.—

Aingeruchoak itz egiñ ziyon
Asnas legunez chorichoari
Baña choriyak etziyon entzun
Aingeruari.

Erramuaren azpi aldean
Iturri cho bat mur mur egiñez,
¡A! zer pozkiroz gida zan ara
Egaa ariñez.

Ispillu baten argi dizdizak
Iturri garbi aren oñean,
Chori laisterra gainberatu zan
Ichumenean.

Gero ¡ai! gero argi biurtzak
Izanik ala engañatua,
Lazo trebean arkitu zuen
Azken ordua.

VICTORIANO IRAOLA.